# 1. PRESENTACIÓN

**El espíritu.** Ahora que presentamos el tercer número de esta publicación: *El valor de la palabra. Hitzaren balioa. Hacia la ciudadanía del siglo XXI. Mendeko hiritartasunerantz,* recordamos el espíritu al que nos hemos referido desde su aparición, en parte contenido en esta cabecera: el logro de una revista anual de pensamiento que propicie contenidos y propuestas que nos ayuden a proyectar y vivir (mejor) en una sociedad de ciudadanos.

Con este espíritu, el *cuerpo* de la publicación ha empezado a desarrollarse, a recibir *el valor de la palabra* de los contenidos y las propuestas que participan de ese principio vital y político que distinguió la trayectoria de Fernando Buesa: el ejercicio dialéctico para la búsqueda del encuentro y del consenso desde la exigencia de la dignidad.

. . .

**La estructura del *cuerpo*: los contenidos.** En su estructura, el *cuerpo* de este tercer número ha dado paso a otra sección, reservada a uno de los espacios centrales que presentamos: dedicado a rememorar la figura de Mario Onaindia, autor de uno de los prólogos que publicamos en el número anterior y participante en la presentación pública de la revista junto con

# 1. AURKEZPENA

**Espiritua.** Argitalpen honen, *El valor de la palabra. Hitzaren balioa. Hacia la ciudadanía del siglo XXI. Mendeko hiritartasunerantz* izenburua duen argitalpen honen, hirugarren zenbakia aurkezten ari garen honetan, gogoan dugu agertu zenez geroztik aipagai izan dugun espiritua, zati batean behintzat izenburu horretan jasota dagoena: hiritarren gizarte batean (hobeto) bizitzen eta proiektatzen lagunduko diguten eduki eta proposamenak sustatuko dituen pentsamenduzko urtekaria eratzea.

Espiritu horrekin, argitalpenaren *gorputza* hasia da garatzen, Fernando Buesaren ibilbideak bereizgarri izan zuen bizi- eta politika-printzipioarekin bat datozen eduki eta proposamenen *hitzaren balioa* jasotzen: duintasunaren exijentzia oinarri izanik, elkargunea eta adostasuna bilatzen duen ariketa dialektikoa, alegia.

. . .

***Gorputza*-ren egitura: edukiak.** Bere egituran, hirugarren zenbaki honetako *gorputzak* beste sekzio bat dakar, aurkezten dugun gune nagusietariko baten sekzioa. Mario Onaindia oroitarazi nahi du. Aurreko zenbakian argitaratu genituen hitzaurreetariko baten egilea da Mario Onaindia, eta aldizkaria jendaurrean aurkezteko ekitaldian parte hartu zuen, Xerardo Estevezekin (beste hitzaurre-

Xerardo Estévez (el otro prologuista) e Imanol Zubero (miembro del Consejo de Redacción). El texto de Onaindia se titulaba *La ciudadanía del siglo XXI*. En él reflexionaba brillantemente acerca del *republicanismo* y la idea de *libertad* desde «una nueva perspectiva para ofrecer una alternativa a la síntesis entre lo universal y lo particular». Y saludaba los debates abordados en esta publicación como una de las vías para «la conquista de nuevos espacios de libertad».

En este tercer número nos hemos querido acercar a un concepto-eje: el de la *dignidad*, implícito en las condiciones para el ejercicio de una ciudadanía plena y que recorre transversal y verticalmente a toda sociedad, sea en clave positiva (por su reconocimiento) o negativa (por su ausencia). Esta aproximación, incompleta e inacabable en un concepto como éste, se ha realizado desde la conciencia del carácter difuso de este término, sujeto al desgaste y a la instrumentalización de los usos que recibe, circunstancia que nos obliga a ser vigilantes.

El trabajo de Carlos García: *Dignidad, entre el presente y el pasado: un apunte etimológico*, procura situar la naturaleza terminológica de

gilea) eta Imanol Zuberorekin (Erredakzio Batzordeko kidea) batera. Onaindiaren testuak *La ciudadanía del siglo XXI* zuen izenburu. Gogoeta distiratsua egin zuen *errepublikanismoa*-ri buruz eta *askatasuna*-ren ideiari buruz, «ikuspegi berri» batetik, «unibertsalaren eta partikularraren sintesiaren ordezkoa eskaintzeko asmoz». Eta ongi etorria egiten zien argitalpen honetan landutako eztabaidei, «askatasun gune berriak konkistatzeko» bide gisa.

Hirugarren zenbaki honetan, ardatz kontzeptura, *duintasuna*-ren kontzeptura inguratu nahi izan dugu. Hiritartasun osoaz baliatzeko baldintzetariko bat da duintasuna, eta gizarte osoaren osagaia da, gizartea zeharka eta bertikalean zeharkatzen duen osagaia, dela onerako (duintasuna onartzen delako) dela txarrerako (duintasuna ukatzen delako). Hurbilketa hori –kontzeptua halakoa izanik nahitaez osagabea eta bukaezina den hurbilketa hori– terminoaren izaera lausoaren jakitun egin dugu. Ematen zaizkion erabilerengatik higatzen eta instrumentalizatzen den terminoa da, izan ere; eta horrek alderdi hori arretaz zaintzera behartzen gaitu.

Carlos Garciaren lana, *Dignidad, entre el presente y el pasado: un apunte etimológico* izenburukoa, kontzeptu horren termino izaeraren

este concepto que, vinculado a la ciudadanía, es tratado en el bloque de los *Artículos y apuntes* desde disciplinas diversas y la mirada crítica de quienes firman los textos. María Cruz Mina plantea su artículo *Ciudadanía, capitalismo y nacionalismo* a partir del Pensamiento político y la Historia de las ideas; Víctor Gómez Pin despliega la Hermenéutica en *El dolor de la patria*; María Jesús Buxó escribe los *Los vericuetos de la dignidad: razón y pasión* desde la Antropología; Constanza Tobío aplica una mirada propia de la Sociología urbana en *La segregación espacial de género: micro y macroespacios*, y José Antonio Fernández de Legaria aborda como psiquiatra la educación y los niños en su texto: *Desde la dignidad de la infancia: reflexiones de una jornada.*

De un modo u otro, la dignidad está presente en el resto de las secciones. En el proyecto *Fronteras traspasadas,* impulsado por Koldo Aginagalde, la dignidad se expone a través del diálogo de las palabras: las de Anjel Lertxundi, Vicente Molina Foix, Mikel Azurmendi, Antonio Muñoz Molina, Ignacio Vidal-Folch, Rolando Sánchez-Mejías, Rogelio Saunders Chile, José Luis Pellicena y Miguel Ríos. Todos ellos proponen *pasaportes de palabras.*

nondik norakoak azaltzen saiatzen da. Hiritartasunari lotutako *duintasun* kontzeptu hori, berebat, *Artikuluak eta oharrak* atalean dago landuta, hainbat diziplinatatik, egileen begirada kritikoaren ikuspegitik. Maria Cruz Minak, *Ciudadanía, capitalismo y nacionalismo* artikuluan, pentsamendu politikoa eta ideien historia ditu abiaburu. Victor Gomez Pinek hermeneutikaren baliabideak ederki darabiltza *El dolor de la patria* izenburukoan. Maria Jesus Buxo antropologiatik abiatu da *Los vericuetos de la dignidad: razón y pasión* idazteko. Constanza Tobiok hiriko soziologiaren berezko begirada aplikatu du *La segregación espacial de género: micro y macroespacios* idaztean, eta Jose Antonio Fernandez de Legariak, berriz, psikiatra gisa, hezkuntzaren eta haurren gai hau landu du: *Desde la dignidad de la infancia: reflexiones de una jornada.*

Era batera edo bestera, duintasuna gainerako sekzio guztietan ere ageri da. Koldo Aginagaldek bultzatu duen *Muga gaindituak* proiektuan, duintasuna hitzen elkarrizketaren bidez azaltzen da: hain zuzen ere, Anjel Lertxundiren, Vicente Molina Foixen, Mikel Azurmendiren, Antonio Muñoz Molinaren, Ignacio Vidal-Folchen, Rolando Sanchez-Mejiasen, Rogelio Saunders Chileren, Jose Luis Pellicenaren eta Miguel Riosen hitzen

En el espacio *Rememorando a Mario Onaindia* la dignidad se personifica en su trayectoria vital, como reflejan los textos de Manu Gojenola Onaindia (en su dimensión humana) y Federico Eguíluz (en la intelectual). La palabra del propio Mario Onaindia constituye el mejor testimonio, como puede apreciarse en los pasajes de obra que se han seleccionado.

La sección *Palabra escrita* presenta tres colaboraciones con registros literarios distintos pero focalizados directamente hacia la *dignidad*: el epigrama de Raúl Guerra Garrido, el poema de Kepa Murua y el micro-ensayo de Inazio Mujika.

La sección *Palabra gráfica* muestra las imágenes indagadoras de Guido Anderloni: *Tras la puerta*, y de Juan Sagastizabal: *Álbum familiar*. Apreciamos la lectura visual sobre dos de los *escenarios* para la *dignidad*: el doméstico (lo privado y lo público) y el familiar (la inocencia de los niños...).

En el apartado *En torno a Fernando Buesa Blanco* recuperamos la palabra: la suya y la referida a su vida política. Presentamos los discursos pronunciados en la ofrenda floral a F. B.

elkarrizketaren bidez. *Hitzen pasaporteak* proposatzen dituzte guztiek.

*Mario Onaindia oroitzapenean* atalean, haren bizi ibilbidean nortuta ageri da duintasuna; halaxe adierazten dizkigute Manu Gojenola Onaindiaren eta Federico Eguiluzen testuek (giza ikuspegitik lehenak, eta ikuspegi intelektualetik bigarrenak). Mario Onaindiaren beraren obra dugu lekukotasunik hoberena, hautaturiko pasarteetan nabari denez.

*Idatzitako hitza* sekzioak hiru kolaborazio dakartza, zein bere erregistro literarioarekin, baina hirurak ere *duintasuna* ardatz duenak: Raul Guerra Garridoren epigrama, Kepa Muruaren poema eta Inazio Mujikaren mikroentsegua.

*Irudizko hitza* sekzioak Guido Anderloniren *(Tras la puerta)* eta Juan Sagastizabalen *(Álbum familiar)* irudi ikertzaileak erakusten ditu. *Duintasun*-erako ikusizko irakurketa nabari dugu, bi *agertoki* hartuta: etxekoa (arlo pribatua eta publikoa) eta familiakoa (haurren tolegabetasuna...).

*Fernando Buesa Blancoren inguruan* atalean, hitza berreskuratu dugu: harena, eta haren bizitza politikoari buruzkoa. Fernando Buesari

por Eduardo Madina, Emilio Guevara, Javier Rojo y Trinidad Jiménez.

Con el libro coordinado por Maite Pagazaurtundúa: *Fernando Buesa Blanco. Una mirada abierta sobre la política vasca*, accedemos también a la palabra de F. B. y a la de quienes participan y son entrevistados o dialogan en sus páginas: Natividad Rodríguez, Juan María Atutxa, Javier Rojo, Emilio Guevara, Ramón Rabanera, Francisco Llera, Javier Elzo, José Antonio Ardanza y Ramón Jáuregui.

José Ramón Díaz de Durana y Antonio Rivera presentan con una mirada actualizada y contextualizadora la conferencia que pronunció Fernando Buesa en torno a la Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU) en el *II Curso sobre Régimen de Universidades Públicas*, celebrado en Salamanca en 1993. Por sus *aportaciones*, entienden que este documento «debiera haber sido un instrumento central del debate sobre la Planificación del Sistema Público de Educación en la CAPV».

Bajo el apartado *Desde la Fundación* recogemos las acciones

egindako lore eskaintzan Eduardo Madinak, Emilio Guevarak, Javier Rojok eta Trinidad Jimenezek egindako hitzaldiak jaso ditugu.

Maite Pagazaurtunduak koordinatu duen *Fernando Buesa Blanco. Una mirada abierta sobre la política vasca* liburuarekin, Fernando Buesaren hitza eskuratu dugu orobat; eta, gainera, guk elkarrizketatuta edo euren artean elkarrizketan arituta, partaide ditugu Natividad Rodriguez, Juan Maria Atutxa, Javier Rojo, Emilio Guevara, Ramon Rabanera, Francisco Llera, Javier Elzo, Jose Antonio Ardanza eta Ramon Jauregui, euren hitzak eskaintzen.

Jose Ramon Diaz de Duranak eta Antonio Riverak, testuingurua azaltzen digun begirada eguneratuarekin, ederki azaltzen digute *Unibertsitate Publikoen Erregimenari buruzko II. Ikastaroan* (Salamanca, 1993) Fernando Buesak emandako hitzaldia, Euskal Herriko Unibertsitatearen ingurukoa. Hor egindako *ekarpenengatik*, egile bien ustez dute dokumentu hori «Euskal Autonomia Erkidegoan hezkuntza sistema publikoaren planifikazioari buruzko eztabaidako funtsezko tresnetariko bat izan beharko litzateke».

y propuestas que la *Fundación* ha desarrollado en el último año. Así, reseñamos las *II Jornadas de reflexiones* sobre *La normalización del uso del euskera. Euskararen erabilaren normalkuntza*; el III Aniversario *In memoriam* por Fernando Buesa, con la conferencia pronunciada por el comisario de Justicia e Interior de la Unión Europea, António Vitorino: *La dignidad humana*; el *II Seminario Estrategias de seguridad integral para una ciudadanía democrática*, codirigido por Francisco Javier Blanco y Javier Otaola; los trabajos de investigación realizados mediante las Becas convocadas en colaboración con la UPV-EHU, así como las exposiciones, y las publicaciones editadas: el libro ya mencionado, *Fernando Buesa Blanco Fundazioa. Una mirada abierta sobre la política vasca*, y el *Cuaderno de Reflexiones Sociales* que recopila y presenta las intervenciones de las Jornadas sobre *La normalización del uso del euskera*, también citadas.

*Fundaziotik* atalaren baitan, fundazioak azken urtebetean egindako ekintza eta proposamenak jaso ditugu. Hartara, hor azaldu ditugu *Gizarte Gogoetarako II. Jardunaldiak*, euskararen erabileraren normalkuntzari buruzkoak; III. urteurrena betetzean, Fernando Buesaren oroitzapenez egindako ekitaldiak, Europar Batasuneko Barne eta Justizia Arazoetarako komisario Antonio Vitorinoren hitzaldiarekin *(La dignidad humana); Segurtasun integraleko estrategiak, hiritar demokratikoak izatearen alde* II. mintegia, Francisco Javier Blancok eta Javier Otaolak zuzendua; Euskal Herriko Unibertsitatearekin lankidetzan deitutako beken bidez egindako ikerketa lanak; bai eta erakusketak ere, eta jadanik plazaratutako argitalpenak: aipatu dugun liburua *(Fernando Buesa Blanco. Una mirada abierta sobre la política vasca)* eta *Gizarte gogoetarako koadernoak*, orobat lehen aipatu ditugun euskararen erabileraren normalkuntzari buruzko jardunaldietako hitzaldiak jasotzen dituena.

En la sección *Otros espacios* la figura de Jorge Oteiza, *Prometeo* contemporáneo de la creación plástica, teórica y literaria, que pugnó desde la dignidad vital con el tiempo y el espacio,

*Beste espazio batzuk* atalean, Jorge Oteiza dute aztergai Jose Ignacio Aranesek eta Juan Pablo Huercanosek, testu banarekin. Jorge Oteizak sorkuntza plastiko,

con los espacios: los ajenos y los propios, los suyos y los de los Otros, es abordada por José Ignacio Aranes y Juan Pablo Huércanos en sendos textos.

El último bloque, dedicado al apunte documental de las referencias normativas que inciden en la ciudadanía y los derechos humanos, selecciona el tratamiento que recibe el concepto de *dignidad* en el *Proyecto de Tratado por el que se instituye una Constitución para Europa*.

. . .

**Formular y escuchar palabras.** Hasta aquí la observación sucinta sobre los contenidos que ofrece este tercer número de *El valor de la palabra. Hitzaren balioa*. Para su preparación hemos partido del mismo propósito que manifestamos en el número anterior: la pretensión de acercarnos con la palabra: la palabra política, la palabra ética y la palabra estética, a *la ciudadanía del siglo XXI*. Son ellas, las palabras de quienes han colaborado en este número, las que han de hablar y ser escuchadas por sí mismas.

Nuestro agradecimiento a quienes las formulan y las escuchan: *por el valor de las palabras*.

teoriko eta literarioko *Prometeo* garaikidea dugun horrek, bizi duintasuna oinarri hartuta, gogotik landu zituen denbora eta espazioa, espazioak: besterenak eta norberarenak, bereak eta besteenak.

Azken atala hiritartasunari eta giza eskubideei eragiten dieten arauen gainekoa da, eta gai hau du zehazki: *Europarako Konstituzioa eratzeko Itunaren Proiektuan duintasuna* kontzeptua nola tratatu den.

. . .

**Hitzak egin eta entzutea.** *El valor de la palabra. Hitzaren balioa* aldizkariaren hirugarren zenbaki honetan eskainitako edukien azalpen laburra egin dugu honaino. Eduki horiek prestatzean, aurreko zenbakian agertu genuen asmo bera izan dugu abiaburu: hitzera hurbiltzeko asmoa: hitz politikora, hitz etikora eta hitz estetikora, *XXI. mendeko hiritartasun*-era. Haiek dira, zenbaki honetan lankide izan ditugunen hitzak dira, berez hitz egin behar dutenak eta berez entzun behar ditugunak.

Bihoakie gure esker ona hitzok egiten eta entzuten dituztenei: *hitzen balioagatik*.